


Berrigara


BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 12a / 756. zenbakia



BETI-BUSTI

Bergarako piraguistek hasi dute denboraldia

MIZPIRUALDE: **MODULU PSIKOGERIATRIKOA JARRIKO DUTE/5** • ELKARRIZKETA: **IÑAKI GABILONDO/12**




IRAGANA GOGORATUZ

Armagintza Debagoienez



*Ikusiko
duzu!*

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa



Martitzenean, martxoaren 16an,
20;30ean eta 22:30ean

ATREBENTZIAEZPADA/ Joango al zara domekan botoa ematera?



JOSEBA ANDONI ARTEAGA
44 urte



AITOR OREGI
36 urte




EVA PALACIOS
33 urte



LORENA TERRAZAS
23 urte



MARIA ANGELES TXURRUKA
64 urte



JUAN RAMON ARRIARAN
56 urte

Bai. Momentuan egoera nola dagoen ikusita nire buruak botoa ematera joateko eskatzen dit, orain arte egin dudan moduan. Gainera, argi eta garbi daukat nori emango diodan botoa.

Bai, gainera erabakita daukat botoa nori eman behar diodan. Uste dut derrigorrezkoa eta garrantzitsua dela denok botoa ematea. Gero keatzeko ere aukera izan dezagun, behintzat.

Ez. Ez nau inongo hautagaitzak konbentzitu. Denak barregarriak eta absurduak iruditzen zaizkit. Inoiz eman dut botoa, baina egoerak txarrera egin du, eta orain ez naiz joango.

Oraindik ez dut erabaki zer egin behar dudan; gainera, ez dakit botoa nori eman ere. Orain arte ez dut sekula botorik eman, beraz, lehenengo aldia izango litzateke bozkatuz gero.

Bai, badut joateko asmoa. Garrantzitsua dela uste dut, guk ez badugu botorik ematen espainolek jasoko baitituzte gehiago. Orain arte beti joan naiz eta orain ere pentsatuta dut zeini eman.

Bai, dudarik gabe. Ez naiz hauteskunde oso zalea izan, baina sasoi honetan gurea defendatu behar dugula uste dut, beraz, joango naiz. Pentsatu dut, gainera, nori eman ere.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK HESI HORIAK DOMINGO IRALAN Domingo Irala kalean sarritan jartzen dituzte hesi horiak, inongo azalpenik eman gabe, egun batetik bestera. Kexa helarazi digun bizilagun baten esanetan, nahikoa arazo izaten da bestela ere autoak inguru horretan aparkatzeko eta horrelako trabak ipiniz gero, bi edo hiru autoren lekua kentzen dute. Gutxienez arrazoia jakinarazi behar luketela esan digu. /I.A.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KULTURA /10

ZAHARRAK /14

Mizpirualde egoitza

Arreta psikologikoa bultzatzeko modulua jarriko dute Mizpirualde egoitzan uda aurretik.

Iñaki Gabilondo

Anastua Jazz Perku Band musika taldeko kidearekin berbetan izan gara.

San Joxeperen batzarra

San Joxepe elkarteak zuzendaritza berritzeko batzar berezia egingo du eguaztean.

ASTEKO DATUA

19

HAUTESKUNDE-MAHAI IZANGO DIRA DOMEKAN

Seminarioan, Martokan, Ibarra eta Matxiategin 19 hauteskunde-mahai izango dira domekan. Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan 12.557 herritarrek dute botoa emateko aukera.

BESTEKEESANA

“ Erakartzeko imajinarioa eta errerealizazioan kalitate handia nabari zaie telebistako iragarki gehienei, baina gizarte honen akatsak normalizat hartzen dituzte askotan. Esate baterako emakumeekiko tratamendua”
MAITE ARISTEGI / Baserritarra
'Asteon'/04-03-05

“ Elurra polita da etxeko leihotik, baina ez hain polita leihoa zure kamioiarena bada eta etxetik urren bazaude. Hiruzpalau egunetan, bide ertzean, ez komunik, ez garbitzerik, ez jaki eta edari berorik... baldintza kaskarrretan izan ziren 5.000 garraiolartik gora”
ESTEBAN MURUAMENDIARAZ / Garraiolarien Hiru sindikatuko kidea
'Berria'/04-03-10

BERAIEK DIÑO/E/ Edurne Azuara



Zorte kontua?

Irakurri berri dudan erreportaje batek zorteari buruz hitz egiten du.

Bertan dioenez, gu gure zortearen arduradun bakarrak, egiten ditugun aukeraketekin erakarri edo aldendu dezakegu zortea. Gure aukerak aprobetxatzen jakiten badugu, intuizioari kasu apur bat egiten badiogu eta itxaropena bizirik mantentzen badugu, zorteak gure alde jokatu omen du.

Ez zaio nire ustez Wiseman psikologo honi arrazoirik falta zentzu honetan. Benetan uste dut pertsona bakoitza gure zorte ona edo txarra egunero, uneoro eraikitzen ari garela (konturatu gabe gehienetan) eta gutxirako balio digula gure zorte txarraz keatztea gure erabakien ondorio badira behintzat.

Baina bada guzti honetan hain argi ikusten ez dudan beste zerbait ere. Gure zortea gure esku dagoela uste badut ere, bere osotasunean al dago gure esku? Zer gertatzen da bat-

batean gure zortea beste pertsona baten esku erortzen denean?

Erabakitze eta aukeratzeko eskubidea bermaturik ikusten dugun momentutik gure zortea airean geratzen da. Ingurura begiratzen dudanean ezin ulertu dezaket adibidez, nola den posible pertsona askoren zortea agintari baten esku geratzen denean eragin ditzakeen ondorio latzen tamaina. Ondorio latz horiek ez ditugu guk aukeratzeko noski, inposaturik datoz.

Beraz, gu oso pozik bizi gintezke aukera guztiak aprobetxatzen eta norberaren geroa poliki-poliki eraikitzen, hirugarren pertsona bat etorri eta erakin hori goitik behera botatzeko ahalmena duen arte.

Baina tira, ez naiz pertsona oso ezkorra eta nahiago dut pentsatzea hau ez dela horrela izango eta gertatzekotan, beti ere okerragoa izan zitekeela pentsa dezaket.

Zorte kontua.

“Gure zortea gure esku dagoela uste badut ere, bere osotasunean al dago gure esku?”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aizundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 12**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 13**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- DOMEKA, 14**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 15**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 16**
MOZOS, Iparragirre 2..... 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 17**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- EGUENA, 18**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
 - Ertzaintza 943 53 47 20
 - Osasun etxea 943 76 24 40
 - Asepeyo 943 76 16 43
 - Pakea 943 76 13 49
 - Angiozarko medikua 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua 943 76 62 23
 - Odol emaleak 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
 - Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
 - Udal Artxiboa 943 77 91 32
 - Igerilekuak 943 76 20 51
 - Kultura etxea 943 77 91 58
 - Liburutegia 943 77 91 62
 - Kirroldegia 943 76 56 41
 - Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
 - Erregistroa 943 76 13 15
 - Jardun 943 76 36 61
 - Idolaz 943 76 65 08
 - Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
 - Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
 - Postetxea 943 76 26 85
 - Bedelkar 943 76 04 68
 - Akulu AEK 943 76 05 18
 - Udal Euskaltegia 943 76 44 53
 - Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30. |
| Santa Marina
Domekak:
11:00, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | San Juan
Domekak: 12:00. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
 - San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1974AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1974an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute martxoaren 27an Zabala jatetxean. Aurretik Pol-Pol tabernan elkartuko dira, 12:30ean. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1500 9007 0752), martxoaren 20ra arte.

1954AN JAIOTAKOEN IRTEERA
1954an jaiotako bergararrek Errioxara irteera egingo dute apirilaren 3an. Irteera 08:30ean izango da Frontotik. Izena emateko epea martxoaren 26ra arte zabalik Euskadiko Kutxan (3035 0009 1400 9110 8913).

ODOL ATERATZEA EGUZTENEAN
Bergarako Odol Emaileek aditzera eman dute hurrengo odol ateratzea eguaztenean, martxoaren 17an, izango dela, Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA
Txapligu taldekoek sukaldaritza ikastaroa egingo dute bihar, zapatua, Arrizuriagan, 16:00etan. Txiskrilabi taldekoek, berriz, bihar, zapatua, jolasak izango dituzte Udal Euskaltegian, 16:00etan.

TXAPLIGU TALDEAREN IRTEERA
Txapligu taldekoek irteera egingo dute martxoaren 19tik 21era Eginoko aterpetxera. Prezioa 40 euro da. Izena emateko epea martxoaren 8an bukatuko da.

TXISKRILABIKOAK ZARAUZTERA
Txiskrilabi taldekoak Zarauzko Etxe Txiki aterpetxean izango dira martxoaren 19tik 21era. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.


URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildid okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietza, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Bosniaren alde bi tona eta erdi material batu zuten

Bergara Bosniaren Alde Plataformak 1994ko martxoan amaitu zuen elikagaiak, eskolako materiala, medikamentuak eta higie-ne eta osasun materiala biltzeko kanpaina. Guztira, bi tona eta erdi inguru batu zuten Bergaran, Balkanetako gerra jasaten ari zen herriaren alde.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Galdara”



Burdingintza, kobrezko galdaria. — Galdara haundi baten egosten zan artua eta esnia.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Astelehena, 1	-3 °C
MAXIMOA Martitzena, 2	19 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	7,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 3	15 °C	-3 °C	- l/m²
Eguena, 4	14 °C	-1 °C	- l/m²
Egubakoitza, 5	19 °C	3 °C	4,4 l/m²
Zapatua, 6	10 °C	7 °C	2,3 l/m²
Domeka, 7	12 °C	5 °C	0,4 l/m²
Astelehena, 8	12 °C	0 °C	- l/m²
Martitzena, 9	15 °C	0 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOPELIKULAK

‘LA VIDA QUE TE ESPERA’

ZUZENDARIA: MANUEL GUTIERREZ ARAGON.
AKTOREAK: JUAN DIEGO, LUIS TOSAR, MARTA ETURA.

HARIA. Pas haranean kokatutako istorio bat da honako hau. Severoren heriotzarekin amaituko da haren eta Gildo alargunaren arteko borroka. Behi batengatiko borroka eta maitasuna azalduko dira istorioan.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean.

PUNUAZIOA: ●●●●●

‘EL ÚLTIMO SAMURAI’

ZUZENDARIA: EDWARD ZWICK. AKTOREAK: TOM CRUISE, KEN WATANABE.

HARIA. Japonia, 1870. urtea. Nathan Algrenak, AEBetako Sezesio-gerran zaildutako kapitainak Japoniako enperadorearen deia jaso du.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNUAZIOA: ●●●●●



BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

OSASUNA/ Mizpirualden diren 113 egoiliarretatik, 85ek mendekotasun maila handia daukate gaur egun

Mizpirualde egoitzak arreta psikologikoa bultzatzeko modulua jarriko du abian

EDU MENDIBIL

Mizpirualde zaharren egoitzan modulu psikogeriatrikoa jarriko dute abian aurten. Egoiliarrek behar duten arreta psikologikoa bultzatzea da aipatutako modulua helburua. Bertan, mendekotasuna duten 20 laguni arreta berezia eskainiko diete.

Gregorio Iruretagoiena Mizpirualdeko zuzendariaren esanetan, aipatutako modulua uda aurretik zabalduko dute. Mizpirualdeko eraikin berriko lehen solairuan kokatuko dute, eta 20 egoiliar zainduko dituzte bertan. Iruretagoienak berak zera azaldu digu: "Gaixoen familiek behin baino gehiagotan komentatu izan digute osasun arretari lehentasuna ematen geniola, eta arreta psikologikoa ere bultzatu behar genuela. Arrazoirik ez zaie falta, eta modulu psikogeriatrikoa jaritzeko lanean gara. Uda aurretik ireki nahi dugu".

Mizpirualde egoitzan 115 plaza daude eta momentuan 113 egoiliar dira bertan. Horietatik, 85ek mendekotasun maila handia daukate. Mendekotasunaren atzean, gehienetan, dementzia kasuak daude; hain zuzen ere, mendekotasuna duten egoiliarren %50-60k dementzia sintomak dituzte. Horrekin lotuta, alzheimer gaixoen kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan. Iruretagoienaren esanetan, arreta larrizten joango da datozen urteotan: "Hori izango da zerbitzu sozialek etorkizunean izango duten erronka nagusietako bat. Hainbat ikerketaren arabera, 2020an, Gipuzkoan, 22.000 lagunek izango dituzten mendekotasun arazoak, 2001ean baino %30 gehia-



ARTXIBOA

Mizpirualde egoitza Antzuolako, Elgetako eta Bergarako udalek gestionatzen dute.

*Arreta psikologikoa
bultzatzeko
modulua uda
aurretik zabaltzea
da asmoa*

gok. Bergaran eta Debagoienean ere gaixo horiei zuzendutako plazarak gehitu egin beharko ditugu, eta egoera horretara moldatzeko urratsak eman nahi ditugu".

HIRU UDALEN AHALEGINA

Mizpirualde egoitza Antzuola, Elgeta eta Bergarako udalek gestionatzen dute. Eudelek, Jaur-laritzak eta diputazioek sinatutako hitzarmenaren arabera, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten neurrian, Diputazioaren mende egon beharko lukete zaharren egoitzek. Hala ere, Iruretagoienak egoera bestelakoa dela dio: "Egoiliarrek ordaintzen dutenarekin ezin dira gastuak ordaindu, eta diferentzia hori ez du Diputazioak betetzen. Antzuolako, Elgetako eta Ber-

*ISO 9001-2000
ziurtagiria
eskuratzeko
prozesuan da
Mizpirualde*

garako udalek ahalegin ekonomiko handia egiten dute egoitzari eusteko, kontuan izanda, gainera, beste behar batzuk ere badirela herrian".

ISO ZIURTAGIRIA

Gaur egun, ISO 9001-2000 ziurtagiria eskuratzeko prozesuan da Mizpirualde. Oteic aholkulari enpresarekin dihardute lanean, eta maiatzerako ziurtagiria jasotza publikoen kasuan, Hernaniokoak eta Errenteriakoak jaso dute aipatutako kalitate ziurtagiria. Iruretagoienak zera dio: "Ezartzen ari garen lan egiteko modua lagungarria izango da etorkizunerako, gauzak nola egin behar ditugun jakiteko". Mizpirualden 45 langilek dihardute gaur egun.

Emakumeen aldeko elkarretaratzea plazan

E.M.

Bergarako Emakume Kultur Elkarteak deituta, 20 bat herritarrek elkarretaratzea egin zuten astelehen eguerdian San Martin plazan. Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko egin zuten elkarretaratzea. Hogeitabat minutuz egon ziren udaletxe aurrean: *Berdintasunean sinisten dugu. Eta zuk?* zioen pankarta erakutsi zuten.

Bestalde, azken urteotan ohikoak diren, martxoaren 8a ospatzeko Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatutako merienda izan zen Artatse elkartearen. BEKE tal-

deko kideak, Helduen Eskolako taldeak eta yoga ikastaroan diharduten emakumeak izan ziren Artatsen, besteak beste. Iñaki Quintanillak alaitu zuen meriendaren osteko dantzaldia.


BEKE-REN SUKALDARITZA IKASTAROA

BEKE elkarteak sukaldaritza ikastaroa antolatu du. Ignacio Beldarrain sukaldariaren eskutik, eskolak martxoaren 15ean, 16an, 22an eta 23an izango dira, Artatsen, 18:00etatik 20:00etara. Izenematea (24 euro) BEKEk Irizar jauregian duen bulegoan edo 943 76 07 95 telefono zenbakian egin daiteke.



Argazkian, BEKEk astelehen eguerdian San Martin plazan egindako elkarretaratze irudi bat.

E.M.



ARTXIBOA

Labegaraietako auditorioa ez da erabiltzen, eta botatzeko erabakia hartu zuen Udalak urtarrilean.

HIRIGINTZA/ Patinetean ibiltzeko plataforma jarriko dute auditorioaren lekuan

Labegaraietako auditorioa bota egingo dute apirilean

E.M.

Labegaraietako auditorioa botatzeko lanak adjudikatzeaz daude. Udalak aipatutako auditorioa kentzeko proposamen teknikoa aurkeztu zuen urtarrilean. Uda parterako patinetean ibiltzeko U forma duen plataforma jarriko dute auditorioaren lekuan.

Labegaraietako auditorioa kiroldegia egin zutenean jarri zuten, 1985. urtearen inguruan. Hala ere, auditorioa ez da apenas erabili. Hasiera baten, uda partean zine emanaldietarako erabiltze-

ko asmoa zegoen. Tenis pista inguratzen duen hesiak auditoriora joateko bidea ixten du gaur.

Esan bezala, Udalak auditorioa kentzeko proposamen teknikoa aurkeztu zuen urtarrilean, eta lanen adjudikazioa 13.950 eurotan egingo da. Datozen asteotan adjudikatuko dituzte lanak, eta apirilerako auditorioa kentzea da asmoa. Kirol Zerbitzuaren proposamenari jarraituz, tenis pistaren ondoan patinetean ibiltzeko U forma duen plataforma horretariko bat jarriko dute. Herriko hainbat gaztetxok behin baino gehiagotan eskatu diote Udalari plataforma jartzea. Uda

parterako plataforma jartzea da Udalaren asmoa.

AGORROSINGO KIROLGUNEA

Bestalde, Agorrosingo kirolgunea berriko baldintza pleguak lantzen dihardu Udalak. Udaleko iturriek lanak martxoan hasiko zirela esan zuten abenduan, baina lanak hasteko datarik ez dago oraingoz.

UR HODITERIA HERRI BARRUAN

Bermeosolo enpresa ur hoditeria sartzen dabil egunotan Herri Lagunak eta Domingo Irala kaleetan. Lanek hiru bat aste iraungo dute.

Metagra, nabarmenduta

Metagra lantegia Europako Ingurumen sarietan nabarmendu berri dute. Joan zen egunean Gasteizen egindako sari banaketa ekitaldian, Ingurumen Gestio Sistemen sailean, Metagra bigarren postuan geratu zen, Orkli enpresaren atzetik. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Sabin Intxaurre Ingurumen kontseilariak accessita eman zieten Metagrako arduradunei. Metagrako lantegia orain dela bost urte hasi zen ingurumen ziurtagiria eskuratzeko lanean.



KZguneak doaneko ikastaroak emango ditu udaberrian

E.M.

Irizar jauregiko KZguneak informatikako hainbat ikastaro iragarri ditu udaberriarako. Esate baterako, martxoaren 22tik aurrera, oinarrizko Interneteko ikastaroa izango da, bi astean, aste barruan 09:00etatik 11:00etara, hain zuzen. 16 urtetik gorakoek izango dute ikastarora joateko aukera. Argibideak Irizar jauregiko lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian jaso ditzaitezue.

DENDARIAK ETA AUTONOMOAK

Bestalde, dendariei eta autonomiei zuzendutako ikastaroak ere izango dira Bergarako KZgunean. Helburua zera da, enpresa ertain eta txikiei informatikarako sarbidea erraztea. Aukera zabala dago. Besteak beste, Interneten aipatutako enpresendako diren dirulaguntzak nola bilatu, on line enpresen aseguruak kontratatzeak aukerak eta sarean

diren finantzaketa aukerak izango dituzte aztergai ikastaroetan. Horien gaineko informazio zabalagoa nahi izanez gero, ondoko webgunera jo dezakezue: www.kzgunea.net.

HOGEI ORDENAGAILU

Begarako KZgunea 2002ko azaroan ireki zuten Irizar jauregiko lehen solairuan. Hogei ordenagailu daude bertan eta ordutegia honako hau da: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. 1.045 erabiltzaile ditu KZguneak gaur egun. KZgunean lanean diharduen Libe Txintxurretak emandako datuen arabera, erabiltzaileen artean 35-44 urte bitarteko emakumeak dira nagusi. IT Txartela eskuratzeko ere ikasle askok jotzen dute KZgunean.

Orain dela 16 hilabete zabaldu zutenetik, oinarrizko Interneteko 60 ikastaro inguru eman dituzte eta sarearen inguruko beste 70 mintegi inguru eskaini ditu KZguneak.



ARTXIBOA

Begarako KZguneak 1.045 erabiltzaile ditu gaur egun.

LABUR

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domeka eguerdian Udal Pilotalekuan

Begarako Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 14an, Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren batutapean, Bandako kideek bost pieza eskainiko dituzte domekan.

Bestalde, Udal Musika Bandak Zallako erakustaldian hartuko du parte datorren maiatzaren 2an.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago udaletxean

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 28ra arte izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren errekaragurekin egingo da ordainketa.

Zergaren eroldaren aurkako errekurtsioak martxoaren 25ean arte aurkeztu ahal izango dira.

Autodeterminazioaren alde egitea eskatu zuten Elkorok eta Diezek

E.M.

Rafa Diezek eta Jose Luis Elkorok autodeterminazioaren aldeko boto eragingarriena Bergarako Proposamenaren aldekoa dela adierazi zuten martitzenean Bergaran. Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzeko herritarrei hitza ematea aldarrikatu zuten.


Bergarako Proposamenaren aldekoek martitzenean egin zuten ekitaldia politikoa, Novedades aretoan. Ainhoa Agirreazaldegia bertsolariak egin zituen aurkezpen lanak. Telesforo Monzonen heriotzaren 23. urtemugan, haren argazkia jarri zuten taula gaine-

an. Hain zuzen ere, Jose Luis Elkorok Mahai Nazionalako kide ohiak Monzonen ideiak ekarri zituen gogora: "Telesforok abertzale guztiok elkartzea nahi zuen. Maltzaga aipatzen zuen behin baino gehiagotan, zazpi lurraldeetako abertzaleok han elkartzea posible ikusten zuelako. Bergarako Proposamenaren ideia hori da, eta gure arteko diferentziak gaindituz, autodeterminazioaren alde egin beharko genuke gogor". Euskal Herriak bizi duen egoera larria eta hauteskunde kanpainan jasan dituzten oztopoak salatu zituen: "EAJk, EAK, Ezker Batuak eta Aralarrek Madrilen aginduak betetzen eta gure kanpaina oztopatzen dihardute". Euskal pre-

soen alde borroka egitea aldarrikatu zuen, eta Aralar kritikatu: "Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea lortuko dutela esaten dute, baina hori ez da egia".

ESTATUAREN MODELOA ZALANTZAN

Bestalde, Rafa Diez LABeko idazkariak salatu zuen PPK eta PSOEek euskaldunen kontra bakarrik bat egiten dutela. Estatuaren modelo zalantzan dagoela adierazi zuen Diezek: "Alde batetik Espainiako eta Frantziako gobernuekin borroka bat daukagu eta bestetik abertzaleok Lizarragarazirekin irekitako biderei eutsi behar diogu. Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzeko orduan, gurea da hitza".



Argazkian, Jose Luis Elkorok martitzeneko ekitaldi politikoan.

Madrilgo Kongresuan euskal taldea sortzea EAJren asmoa

ERREDAKZIOA

EAJ alderdiak ekitaldi politikoa egin zuen aurreko egunean Bergarako Batzokian. Jose Ramon Beloki EAJko Kongresurako hautagaiak Madrilen euskal taldea sortzeko asmoa azaldu zien alderdikideei.

Besteak beste, Jose Ramon Beloki Kongresurako hautagaia, Xabier Albistur Senaturako hautagaia, Iñaki Txueka diputatua, Juan Mari Juaristi Gipuzkoako Buru Batzarreko presidentea eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea izan ziren joan zen egunean Batzokian egindako ekitaldian.

Victoriano Gallastegi alkateak gonbidatuak aurkeztu zien Batzokian bildutako. Juan Mari Juaristik EAJk azken hauteskunde autonomikoetan lortutako emaitza bikaini eusteko itxaropena azaldu zuen.

EUSKAL TALDE BAKARRA

Bestalde, Jose Ramon Belokik EAJ Kongresuan euskal talde



Gallastegi alkatea, Jose Ramon Beloki eta Juan Mari Juaristi, egunean Batzokian.

bakarra izango dela aurreratu zuen: "Madrilen ez daukate arazorik beste edozein formulatan bagaude, talde mistoan, esate baterako; baina ez dute euskal talde bat nahi eta horregatik esan zuen Rodriguez Ibarrek nahiago zuela euskaldunok han ez egotea, talde propio bezala ez gaituztela-

ko nahi". Domekako hauteskundeak Euskal Herriarentzat garrantzitsuak izango direla gaineratu zuen: "Madrilera ordezkari indartsua bidaltzea komeni da, gai garrantzitsuak jokoan daudelako. Herritarren hitza ondo kudeatzeko gertu dago gure alderdia".

Hemeretzi mahai izango dira hauteskundeetan Bergaran

ERREDAKZIOA

Domekako hauteskundeetarako hemeretzi mahai izango dira Bergaran, Seminarioan, Matxiategin, Martokan eta Ibarren. Guztira, 12.557 herritarrek izango dute boto eskubidea.

Domekako hauteskundeetan 12.557 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea. Joan zen maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan, 12.797 lagunek osatzen zuten hauteskunde-errola Bergaran. Beraz, 240 lagun gutxiagok eman ahal izango dute botoa datorren domekan.

Azken hauteskundeetako datuei dagokienez, abstentzioa %28,5ekoa izan zen joan zen maiatzean. Bestalde, 2000ko orokorrean, martxoaren 12an, abstentzioa nabarmen handiagoa izan zen: %51.

Domekan 19 hauteskunde-mahai jarriko dituzte Bergaran. Honela banatuta: Seminarioan bederatzita (azken hauteskundeetan baino bat gehiago, hain zuzen), Poligonoko Aranzadi Ikastolan (Boni Laskurain kalean)

bost mahai jarriko dituzte, Martokan lau eta Ibarren, berriz, mahai bakarra izango da.

Hauteskunde-mahai bakoitzean mahaiburu bat eta beste bi mahaikide izango dira lanean domekan. Udaletxean egindako zozketan, 57 herritar eta haien ordekoak izendatu zituzten otsailaren hasieran.

KONGRESUA ETA SENATUA

Jakingo duzue, Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak izango dira domekakoak. Zuri koloreko kartazala Kongresurako hautagai zuzendutakoa da eta marroi kolorekoan, berriz, Senaturako hiru hautagai izendatzeko aukera dago.

Ohikoa denez, hauteslekuak 09:00etatik 20:00etara izango dira zabalik domekan. Botoa emateko, NA, pasaporte edo gidatzeko txartela erabil daitezke.

EMAITZAK ASTELEHENKO GOIENKARIAN

Hauteskunde emaitzen berri *Asteleheneko Goienkarian* jaso ahal izango duzue astelehenean. Harpide ez direnek 0,80 euroren truke erosi ahal izango dute aste-karia ohiko saltokietan.

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

etxalar


kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

Bergara Errehabilitazio
Fisioterapia Zentroa

MASAJEAK ETA
ERREHABILITAZIOA

Hitzartutako aseguru berria:



Matxiategi 5
Tel.: 943 76 02 03/76 25 70



AGIRRE LEHENDAKARIA ETA SIMON ARRIETA DONIBANEN

Jose Antonio Agirre lehendakaria jaio zela 100 urte bete dira aurten. Eusko Jaurlaritzako lehenbiziko lehendakaria Bilbon jaio zen, 1904an, eta Parisen hil zen, 1960an. Ezkerreko argazkian Simon Arrieta bergarar margolariarekin ikus dezakezue, Donibane Lohizunen, 1959ko abuztuan, hain zuzen ere. Simon Arrietak lehendakariari

erretratu bat egin zion orduan, eta erretratu haren argazkia sinatu zion pintore bergararrari, oroigarri modura (eskuamako argazkia). Elisabet Arrieta Simonen alabetako batek ekarri dizkigu bi erretratuok. Simon Arrietak egonaldiak egiten zituen Iparaldean, eta lehendakariaren laguna zen. Goiko argazkia atera eta hilabete gutxira hil zen Agirre


Parisen, 1960ko apirilaren 22an. Donibane Lohizunen ehortzi zuten. Simon Arrieta (Bergara, 1915) bere garaiko euskal pintorerik bikainetakoa izan zen, zalantzarik gabe. Parisen eta Madrilan ere ibili zen pintatzen, eta, horrez gain, bere jaioterriko pintore askoren maisua izan zen. 1969ko otsailaren 12an hil zen Bergaran.



BERGARARRAK ETA SORALUZETARRAK TXOTXETIK TXOTXERA

Soraluzeko Pil-Pilean euskara elkartekoek eta Bergarako Jardunekoek sagardotegira irteera egin zuten aurreko egubakoitzean. Astigarragako Rezola sagardotegian izan ziren, eta primeran ibili ziren lagun artean. Guztira, 43 lagun joan ziren bertara, Larreategi trikitilarien laguntzaz. Sagardotegietan berez giro aparta izaten bada, Ane eta Unai trikitilariak are eta gehiago alaitu zuten txotxetik txotxerako bidea. Soraluzetarrak eta bergararrak umore onean, kantuan eta dantzan ibili ziren, eta, esan digutenez, aurtengo sagardo uzta primerakoa izan da. Argazkia ikusi besterik ez dago... Hurrengora arte!!!

MINGAINARITIRAKA



Aroa
Vicente

LEIZE ARROPA DENDAKOIA

Estetika ikasketak egin zituen arren, batez ere, arropa dendentan egin du lan Aroak; Mango, Trevoli eta beste hainbat dendatan lan egindakoa da. Orain, berriz, Leize arropa dendan dihardu lanean, iazko uztailean zabaldu zutenetik.

Arropa denda baten lan egiteko, zer behar da?

Jendearekiko harremana gustatzea garrantzitsua da; bestalde, gustu pixka bat edukitzea eta norbera janzterako orduan ere itxura pixka bat zaintzea ezinbestekoa da.

Daukazun lanarekin, moda jarraituko duzu, ezta?

Bai; txiki-txikitatit gustatzen zait, gainera. Aldizkariak erosten ditut, telebistan ere arreta jartzen diot modari... Gainera, dendako nagusiak ere ematen dizkit aholkuak.

Zeuri, ze estilo gustatzen zaizu?

Estilo modernoa, baina oso praktikoa.

Udaberri-uda denboraldirako zelako arropa dator?

Oso arropa koloretsua; koloreak dira denboraldi berriko protagonistak. Koloreez gain, arropa oso praktikoa dator: pirata estiloko prakak, zuekoak, kamiseta asko... Kanpai formako prakak, berriz, gero eta gutxiago datoz.

Itxura fisikoa asko zaintzen duzu?

Bai; beti gustatu izan zait orrazkera, janzkera, azala... zaintzea; gainera, Estetika ikasketak egindakoa naizenez...

Zure lanean zer da gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gehien gustatzen zaidana da jendea erosten duenarekin gustura geratzea eta hori eskertzea. Gutxien? Bada, ez dakit, oso gustura dihardut lanean.

Aldatzekotan, zertan lan egin nahiko zenuke?

Erakusleihatetako diseinuan lan egingo nuke; horixe ikasi nahiko nuke.

Zure bertute bat? Eta akats bat?

Atsegina naiz eta jendearekiko harremanetan, pertsona irekia. Akatsa, berriz, batzuetan gehiegi hitz egiten dudala.

Asteburu baterako plan ideala?

Mutil-lagunarekin merkataritza etxe batera joatea, dendak ikustera, bazkaltzera, zinemara... Horrez gain, hondartzara joatea ere asko gustatzen zait.

Amets bat?

Oraingo lan honekin gustura jarraitzea, dendak martxa onean jarrai dezala, eta bizitzan egonkortasuna lortzea.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA/ Xabier Azkarate

MADEIRA / 2001eko martxoan

Bikotekidearekin joan nintzen Madeirara. Bospasei eguneko bidaia egin genuen. Bilbon hegazkina hartu eta Lisboa-ra joan ginen; handik, berriz, Madeirarako hegazkina hartu genuen. Aipatzekoa da aireportua bera zelakoa den; izan ere, oso txikia da eta hegazkinak justu-justu dauka lur hartzeko tokia. Lurreratzeko pista ia-ia itsasoraino iristen da.

Madeira oso uharte txikia da; zabaleran 57 kilometro ditu, eta luzeran, berriz, 22. Hain txikia da uhartea, auto bat errentan hartu eta egun baten ia uharte osoa ikus daiteke.

Turistikoa da, baina oso uharte ezberdina da. Bitxia bada ere, ez dauka hondartzarik; uharte guztian ez dago hondartza bat bera ere. Hortaz, beste turismo mota bat dago.

Azken baten, uharte berezia da: esan bezala, txikia da, 1.800 metroko mendiak dauzka, ez dauka hondartzarik eta munduko itsaslabarrik handienetakoa dauka.

Funchal da hiriburua; horixe da herri turistikoena. Uharteko mendi altuena, Areiro, hantxe dago, hiriburutik bertan. Hiria bera itsas kontratan hasten da, dena aldapan dago, eta atzeko aldean, 1.800 metroko mendia; pentsa zelako gorabeherak dituen herrialdeak. Oso polita da Funchal eta oso ondo zain-



"Oso uharte txikia da Madeira: zabaleran 57 kilometro ditu, eta luzeran, berriz, hogeita bi"

"Uhartea izanda oso bitxia da, baina Madeira osoan ez dago hondartza bat bera ere"

duta dago. Hiri handia da, baina eraikin guztiak baxuak dira, han ez dago hirietako eraikin altu horietakorik.

Bospasei egun egin genituen Madeiran, eta ia uharte guztia ikusi genuen. Motxilak bizkarrean hartu eta autobusean edo autostopean, herririk herri ibili ginen. Herri txiki oso politak daude; batzuetan, badirudi denboran atzera egin duzula.

Badago harritu gintuen kontu bat: han euri asko egiten du eta ur asko dago. Edateko ura lortzeko, antzina egindako kanalak daude. Ehunka kilometroko kanalak daude, eta kanalari jarraituz *trekking*-a egiteko aukera eskaintzen du hainbat enpresak.

Hiriburutik irtenez gero, denak dira herri txikiak; horietako asko nahiko pobreak dira. Bitxia da, herri gehienak kostaldean dauden arren, ez dago kai handirik, eta arrantzale txikiak besterik ez dago. Madeirako jende gehiena turismoari esker bizi da.

Uharte ezberdin bat ezagutu nahi duenarendako aukera polita eskaintzen dio Madeirak. Hondartza bila doanarendako, baina, ez da toki egokia. Paseatzeko eta mendian ibiltzeko gogoz dagoenarendako, bai.

AINZANE IRIZAR



Xabier, itsasertzean egin zuten ibilaldi baten; urrutira, Santo Porto irla ikusten da.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13



IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

OREKA

PSIKOLOGIA

FAMILIAKO, BAKARKAKO
ETA BIKOTeko TERAPIA.

- Harremanetarako zailtasunak: bikotean, familian eta taldean.
- Portaera arazoak
- Eskola-porrota
- Antzietate, depresio eta elikadura arazoak.

Miriam Mujika Tel.: 676 617 055
Ainhoa Basurko Tel.: 615 703 725
AURRERA ERAIKINA
Urtzaille 1 solairua, EIBAR

PIRAGUISMOA

Beti-Busti Kirol Elkarteko zortzi piraguista Espainiako eta Euskadiko txapelketetan

Kirol arloan iazko mailari eustea da asmoa, baina ibarrean piraguismoa hedatzea da taldearen beste helburuetako bat

IRATI AGIRREAZALDEGI

Beti-Busti Kirol Elkarteko piraguiak hasi dute dagoeneko aurtengo denboraldia. Bergarrek Espainiako eta Euskadiko txapelketetan hartzen dute parte. Dagoeneko Galizian, Frantzia eta Bidasoan hainbat probatan jardun dute, baita emaitza onak lortu ere.

Kostaldekoko herria ez den arren, uretako kiroletarako bada zale-tasunik Bergaran. Beti-Busti Kirol Elkartea da horren adierazleeriko bat. Piraguismoan jarduten dute bertako kideek eta jadanik jokatu dituzte aurtengo denboraldiko hainbat proba, baita emaitza onak lortu ere.

Espainiako Kopako lehen jardunaldia Ourenseko Avia ibaian jokatu zuten bergarrek. Nesketan, Leire Fernandezek hirugarren postua eskuratu zuen, kadete mailan. Mutiletan, berriz, Iraitz Artola eta Markel Agirre hirugarren eta laugarren tokian sailkatu ziren, hurrenez hurren, juniorretan. Taldeka ere laugarren tokian geratu ziren Beti-Bustikoak. Ez da ez nolanhiko postua, txapelketan 16 taldek parte hartu zutela kontuan hartuta.

Espainiako Kopako proba zen arren, Galizian horrelako txapelketa bat lehen aldiz antolatu zuten, eta hainbat arazo izan ziren. Beraz, puntuak sailkapen orokorrerako kontuan ez hartzea erabaki zuten.

EUSKADIKO KOPA

Espainiako txapelketetan ez ezik Euskadikoetan ere hartzen dute parte Beti-Bustikoak. Euskadiko Kopako lehen jardunaldia Fran-



Elurra goian-behean zela jokatu zuten Euskadiko Kopako lehen jardunaldia Frantzia, Lourdes alboan.

tzian jokatu zuten, St. Pee Betherramen, Lourdes alboan.

St. Pee Betherrameko proba Beti-Busti Kirol Elkarteak antolatzen du. Izan ere, Bergara inguruan ezinezkoa da maila honetako proba bat gertatzea. Aurten zailtasunak izan dituzte proba hau egiteko, antolatzeke unean ez ezik txapelketa egunean bertan ere elurra goian-behean ziharduena.

Antolatzaileek esan digutenez, bigarren txanda bertan behe-laga behar izan zuten elur ekaitza zela eta. Ur izoztuetan jarduteko piraguiak erakutsi zuten

Irungo eslalomean, Bergarako bi piraguista junior mailako podiumean izan ziren

balentria ere aipatzeko modukoa dela gaineratu digute.

Markel Agirrek lehen postua eskuratu zuen junior mailan eta Iraitz Artolak hirugarrena mai-

la berean. Leire Fernandez, berriz, hirugarren izan zen kadete mailako nesken artean. Taldeka ere, Euskadiko taldeen sailkapenean hirugarrenak izan ziren Bergarakoak.

ESLALOMA IRUNEN

Joan zen asteburuan Espainiako XII. Slalom Kopa jokatu zen Irunen, Bidasoako uretan. Guztira, 163 piraguiak jardun zuten lehian eta bi bergarar, junior mailan, podiumean izan ziren. Markel Agirrek lehen tokian eta Iraitz Artolak hirugarrenean amaitu zuten proba. Beti-Busti Elkartea

bosgarren izan zen taldekako sailkapenean.

LEHIATIK KANPO 20 PIRAGUISTA

Gaur egun Beti-Bustiko zortzi piraguiak dihardute Euskadi eta Estatu mailako txapelketetan. Iñaki Gallastegi beteranoetan; seniorretan, Eneko Iturrospe eta Roberto Puy; Markel Agirre eta Iraitz Artola juniorretan; eta kadeteetan, Leire Fernandez, Ibon Etxezarreta eta Markel Cestafe. Horiez gain, beste hiru piraguiak eskola-kirolean jarduten dute, eta azken hauek datorren urtean kadete mailan pasako dira. Bestalde, Beti-Busti taldean badira beste hainbat kide —aurten 20 inguru— piraguismoa egiten dutenak. Nahiz eta txapelketetan ez parte hartu, hauek ere federatuta daude.

Iaz lehen aldiz izan ziren taldekako bost piraguista Espainiako Txapelketan. Juniorretan lehenengo eta hirugarren postuak eskuratu zituzten Euskadi eta Espainia mailan eta Eskola Kirolean ere podiumean izan zen taldekako Leire Fernandez.

Aurten, iazkoari eusten saiatuko dira kirol mailan. Baina badituzte beste hainbat helburu: "Piraguismoa ibarrean zabaltzea nahi dugu. Horretarako uda partean hainbat ikastaro antolatu izan ditugu azken urteotan. Egutegian ibarreko kirol azpitigiturretan kontuan hartzea litzateke erreka-guneak prestatzea kirol honetan jarduteko. Zorionez, erreka poliki-poliki gero eta garbixeagoak ditugu erreka bazterrek zaintzen ari garen gero, aisialdirako leku oso aproposak lortuko genituzke" esan digu Iñaki Artola taldekako kideak.

Gimnasia erritmiko txapelketa Labegaraietan

I.A.

Bihar, zapatua, gimnasia erritmiko txapelketa jokatu dute Labegaraietako kiroldegian, goizez eta arratsaldez. Bertan, besteak beste, Ariznoa taldeko gimnastek hartuko dute parte.

Labegaraietako kiroldegian jokoan izango den gimnasia erritmiko txapelketan, Ariznoa, Bela-bieta, Aiamendi, Hernani, Tolosa, Irunesa, Loke, Akek eta Jauzi klubek hartuko dute parte.

Bestalde, Bergarako Mariaren Lagundia, Aranzadi eta Ipintza, Antzuola Herri Ikastola, Toki Alai, San Viator, La Salle-Donos-

tia, Zurriola, San Francisco Javier, San Patricio, Laskorain, Herrera, Uzturpe eta Hirukide ikastetxeetako gimnastek ere jardungo dute.

Txapelketa bihar, zapatua, goizez eta arratsaldez izango da. Goizeko saioa 10:30ean hasiko da eta arratsaldekoa, 16:30ean.

Ariznoako gimnastek hainbat mailatan hartuko dute parte eta erabiliko dituzten tresnak ere askotarikoak izango dira.

Gasiteek mazoekin eta uztaiekin jardungo dute taldeka eta zintekin bakarka: Virginia Odriozola, Maialen Legorburu, Izargi Vega, Iraitz Gastiain, Maialen Toledo eta Uxue Arregi izango dira, maila honetan.

Kadeteetan, Irati Arteagak, Eider Carrascok, Sarai Gallegok, Lorea Albenizek eta Sarai Ruizek uztaiekin eta sokekin jardungo dute taldean eta lehenengo hirurek mazoekin bakarka.

Azkenik, alebinetan esku libreekin zein pilotarekin taldean parte hartuko dutenak Usoa eta Lide Toledo, Jurdana Pildain, Ainara Amoros eta Ainhoa Martinez izango dira. Bestalde, pilotarekin bakarka ere arituko dira Ainhoa Martinez ez beste guztiak.

Guztiak Sonia Corredera entrenatzailearen esanetara gertatu dira txapelketarako, eta erakustaldi polita eskaintzeaz gain, podiumean tokia lortzea izango da gimnasten asmoa.



Ariznoa taldeko gimnastek goizez eta arratsaldez jardungo dute.

Azken jardunaldia kadete eta gazte mailetako eskubaloi taldeendako

I.A.

Hiru eskubaloi partidu izango dira domekan, hilaren 14an, Labegaraietako kiroldegian. Gazte mailako mutilen taldearendako eta kadete mailako mutilendako azken jardunaldia izango da domekakoa. Horiez gain, kadete mailako neskek ere jokatuko dute.

Domeka goizean hiru eskubaloi partidu izango dira Labegaraietan. Kadete mailako neskek jokatuko dute lehenengo, goizeko 10:00etan, Urola taldearen aurka.

Nesken partidua amaitu ondoren, 11:15ean, kadete mailako mutilak irtengo dira kantxara. Leizaranen kontrako ligako azkena izango da, eta bigarren itzuli oso ona jokatu ostean, sailkapen orokorrean seigarren tokian amaitzeko aukera dute Xabier Lijoren mutilek.

GAZTEENDAKO PARTIDU GOGORRA

Gazte mailako mutilendako ere domekakoa azken jardunaldia izango da ligari dagokionez.

Elurra zela-eta bertan behera geratu zen partidua jokatuko dute Josetxo Muniategiren mutilek, 12:30ean hasita, Urola taldearen aurka.



JOSETXO MUNIATEGI

Gazte mailako mutilek sailkapenean seigarren postuan amaitzeko aukera dute.

Partidu gogorra izango da, dudarik gabe. Izan ere, sailkapen orokorrean Urolakoak bigarren tokian daude, eta Bergarakoak hirugarrenean. Orain arte euren kontra jardun izan dutenean jokoa nahiko parekatua izan dela esan digu Josetxo Muniategi gazteen entrenatzaileak.

Muniategiren esanetan, "ahal den ondoen defendatzen saiatuko gara. Horretarako, joko azkarraren erabiliko dugu. Izan ere, Bergarako gazteak Urolakoak baino

txikiagoak dira eta abiadura gure aldeko faktorea izan liteke".

Entrenatzaileak taldea maila onean ikusi du azken norgehiagokarako. Gainera, taldekideen artean inor ez dago min hartuta.

LIGAREN OSTEAN, KOPA

Liga hirugarren tokian amaitu ostean, atsedenerako tarte bat hartu eta kopako partiduei ekingo diete Bergarako eskubaloi jokalariek hilabete amaieran edo datorren hilaren hasieran.

Benjaminak txapelkun eskola arteko pilota txapelketan

I.A.

Deba arroko eskola arteko pilota txapelketako finala jokatu zuten benjaminak, bariku iluntzean, Bergarako Udal Pilotalekuan.

Elgoibartarrak izan zituzten aurrez aurre Bergarako mutilek, eta 3-2ko emaitzarekin irabazi zuten txapelketa.

Txapelketa honetan tantoak tenis jokoan bezala kontatzen dituzte, eta hasierako biak galdu egin zituzten arren, gero jokoa zuzendu eta amaieran domina jantzea lortu zuten etxeko pilotariak.

Bost lagunek osatzen dute benjaminen taldea, baina finalean hiruk bakarrik izan zuten jokatzeke aukera: Jokin eta Beñat Etxabek eta Mikel Gallastegik. Beste bi taldekideak Kepa Zabaleta eta Iñigo San Jose dira. Guztiek jaso zuten, hala ere, txapelkun saria: domina.

ASTE HONETAN, HERRIKOAK

Gaur, barikua, 19:15ean hasita herriko eskola arteko txapelketako partiduak jokatuko dira. Aurreko astean bezala ikuslerik ez da faltako Udal Pilotalekuko harmailetan.



AITOR LIZARRALDE

Bost pilotarik osatzen dute irabazle izan zen benjaminen taldea.

FOTOKIROLA



Shotokan Karate Taldeko gaztetxoak bikain Eibarko txapelketan

Eskola Kiroleko karate txapelketa jokatu zen zapatuan Eibarren. Shotokan Karate Taldeko gaztetxoak izan ziren bertan, eta maila ezin hobea erakutsi zuten. Bergararez gain, Aretxabaletakoek, Arrasatekoek, Oñatikoez eta Eibarkoek hartu zuten parte. Benjaminetan, gerriko laranja arteko mailan, Matxalen Zezeaga lehenengo izan zen eta Alazne Murgizu bigarren. Gerriko berdetik gorakoetan, berriz, Haizea Iñarra sailkatu zen lehen postuan eta Jon Odriozola eta Jon Urkia hirugarrenean. Alebinetan, gerriko berdetik gorakoetan, Julen Arana lehenengo izan zen, Ioane Amasorrain bigarren eta Mikel Aginagalde hirugarren. Infantiletan, gerriko berdetik beherakoetan, Nerea Marzo izan zen lehenengo neska eta Pablo Elkoroiribe lehen mutila. Gerriko berdetik gorakoetan, Aitziber Ferreiro hirugarrena izan zen nesketan; mutiletan, berriz, Kepa Odriozolak irabazi zuen eta hirugarren tokian Patri Larrañaga eta Andoni Conde sailkatu ziren. //A.

Bergara-Beti Gazte zapatuan Agorrosinen, 16:30ean

ERREDAKZIOA

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak Beti Gazte taldea hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:30ean. Juanina Garairen taldeak agur esan dio mailaz igotzeko aukerari: sailkapeneko 14. tokian daude mahoneroak, 34 punturekin. Beti Gazte, berriz, 17. tokian dago. Sailkapenean ahalik eta gorako bukatzea da bergararren asmoa.

Aste bukaeran beste lau partidu jokatuko dira Ipintzan.

Bihar, zapatua, lehen kadete mailako taldeak Beraunen aurka jokatuko du, 11:30ean. Arratsaldean, berriz, lehen erregional mailakoak Segura hartuko du, 18:30ean.

Domekan, berriz, lehen mailako infantilek Ordiziaren aurka jokatuko dute, 10:30ean. Igoera fasean dihardute Gorka Larrañagaren mutilek. Futbol jardunaldiarekin amaitzeko, ohorezko gazte mailan, Bergarak eta Anaitasunak neurtuko dituzte indarrak 12:00etan.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

10:30: Artusamak-T.M.T. Pirulotarrak

11:30: Belengua-Pirulotarrak, FAC

12:30: FAC-Bedarreta, Belengua

16:00: P.D.S.-Teatekh, Argandolas

17:00: Argandolas-Irubide, Pagomendi

18:00: Pagomendi-T. Musakola, Egurre

19:00: Kalaveras-Egurre, T. Musakola

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Mongatxuria-Errotagain, FAC

17:00: FAC-Ganbara, Mongatxuria

18:00: Vervenir-K. Piperrak, Ganbara

19:00: Kalaveras-A ze flaxa, Cosa Nostra

20:00: Cosa Nostra-Canalejas, A ze flaxa

DOMEKAN, KANPOAN

16:00: Pagomendi-Ganbara, Torrekua

17:00: S.D.T.N.T.-Torrekua, Agirrebeña

18:00: Fit Automocion-Agirrebeña, Irubide

19:00: P.D.S.-Irubide, Fit Automocion



Sinpletasunaren xarma.
Txikitasunean handi.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxes: 943 76 70 58

Etxerako ederrena, Zanguitun


**%20ko deskontua oleo eta
etxerako pinturetan**

Eskulan eta arte ederretako
produktuak ere baditugu



**Koloreak
sortzeko
makina**

Paretetarako,
zorurako,
altzariak
margotzeko...



ZANGUITU margoak

Irala z/g. BERGARA.
Tel.: 943 76 19 54.

IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE.
Tel.: 943 79 11 71.

deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4. BERGARA.
Tel.: 943 76 08 69.

Parket flotatzailea* Sintasola* Mocketak*
Paper pintatuak

*Salmenta eta etxean ipintzea.

Alfonbrak Alfonbrak neurrira **Funda nordikoak**
Edredoiak **Kortinak** **Toailak** **Izarak**



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 12. alia

IEPA LAGUNOK!

lujuuuuu!! Gaurko aliarekin erregalua zozketatuko dot. Zelako pozik jartzen naizen halako egunetan!!
Despistaturen bat baldin badago, gogoratu erregalua irabazteko erantzun-orrixa erantzunda, martitzen goizerako zuen ikastetxeko idazkaritzan laga bihar dozuela.



URREZKO ARAUAK

Zer egin neike ondo pasatzeko?
A ze sustoa emon doskuzun!



~~Zer egin leikedot ondo pasatzeko?~~
~~Ke susto emon doskuzun!~~



LOTU MARRAZKIXAK ESALDIXEKIN



1

A. Iñakiren amak ekarri nau autoz etxera.



4

E. Atzo Maialenen amama ezagutu neban.



2

B. Asko kostatu arren, azkenian topau dau katuak bere katakumia.



5

F. Anbulantzian eruan nindduen ospitalera.



3

D. Maite lagunekin sokasaltuan ikusi dot.



6

G. Gaur be katuak hiru sagu harrapatu dittu.

LIBURU GOMENDIUA



Maddi *oporretan* liburu oso polita da. Liburu honetan Maddi izeneko neskatilla bat oporretan bere aittittaren herrira juaten da.

Gabetan aittittak batzuetan ipuin bat irakurtzen dotsa eta beste batzuetan asmau egitten dau. Beste batzuetan Maddik kontatzen dotsa aittittari. Benetan historia zoragarriak kontatzen dittu ipuin honek.

Iñaki Zubaldia · Elkar argitaletxia
200 orrialde



ENEKO GONZALEZ VALLE
Aranzadi ikastola
10 urte

ELKARRIZKETA

IÑAKI GABILONDO/ANASTUA JAZZ PERKU BAND MUSIKA TALDEKO KIDEA

“Nire kasuan, abestietako hitzak idaztea barne urratuak lasaitzeko era bat da”

EDU MENDIBIL

Iñaki Gabilondo bergararrak (28 urte) Anastua Jazz Perku Band musika taldean dihardu azken bi urteotan. Zazpi lagunek osatzen dute taldea. Abeslaria izateaz gain, Iñakik hitzak jartzen dizkie Anasuaen jazz kantuei.

Zelako musika egiten duzue?

Musika alaia eta dantzagarria da gehienbat. Aspaldiko jazz musika atzerritarra, baina gure erara moldatuta eta euskarazko hitzekin. Nolabait definitzekotan nahasketa-saiakera berezi samarra dela esango nuke. Taldea orain dela pare bat urte sortu genuen Gasteizen. Hainbat aldaketa izan dira ordutik hona, eta gaur egun, Rober Gurd (bateria), Luisja Barron (perkusiogilea), Kike Lafuente (kontrabaxua), Mikel Gartzia (gitarra), Xefe Ferroni (saxofoia), Leonel Ruiz (pianoa) eta ni neuk (abeslaria, armonika eta gitarra) osatzen dugu taldea.

Hitzak euskaraz dira. Zeri buruzkoak?

Herri honek bizi duen gatazka politikoak nire baitan sortzen duen mina ahal dudun zintzoen islatzen saiatzen naiz. Min ematen dit klase politikoak konponketa duina bideratzeko erakusten



Iñaki Gabilondok Anastua Jazz Perku Band taldearekin Gorlan ehendako kontzertuko irudia.

duen ausardia falta. Min ematen didate, era berean, preso euskaldunekin eta horien senideekin egiten diren gehiegikeria izugarriek. Abestiak orokorrean tristeak dira baina alaitasuna da helburua eta perspektiba. Nik sortutako hiru albiste moldatu ditugu Anasuaen. Barne urratuak lasaitzeko era bat da.

“Aspaldiko jazz musika atzerritarra jotzen dugu, gure erara moldatuta eta euskaraz”

Zeintzuk dira zure gustuko talde eta bakarlariak?

Jamaikako jaza deritzonak harrapatuta nauka. Hala ere, une bakoitzari musika bat jartzea posible balitz, une tristeteei Kim Krimson edo Palace jarriko nieke, une alaiei Skatalites edo La Thorpe Brass. Bakardaderako Xabier Montoia atsegin dut, bai-

ta Triky eta PJ Harvey ere, eta mendirako, berriz, trikitia. Eta Tapia eskura izanez gero, zaila gutxi.

Las punkis también lloran antzezlanean ere hartzen duzu parte.

Bai, Detritus Teatrus taldearen hirugarren lana da, eta antzezlaneko abesti bitan armonika sartzea proposatu zidaten. Diktadurara garaian Espainiatik Euskal Herrira etortitako familia baten alabak —Belen Nevado aktorearene horiek gordintasunez deskribatzen dizkigu. Punk musika eta etorkinen izaera umore berritzez uztartzen ditu Belenek, eta berak abesten duen bitartean, armonikarekin laguntzen diot. Ikusleen artean ateratzen naiz, ikusle soil gisa.

Musika zein antzerkigintzan aurrera egitea zaila da, ala?

Eremu guztietara hedatu dugu merkatuaren legeak ezartzen duen sistema. Argi dago produktu on bat izan behar duzula saltzeko. Bestalde, zuhurra baino zuhurrago izan behar duzu. Hala ere, gure herri maitatu honetan adierazpen askatasuna kutxa hotz batean sartuta daukagu eta kutxa horretatik kanpoko adierazpenak ez du lasai garatzeko eskubiderik, baliabiderik gabegotera kondatuta dago.

**The Shocker musika taldea egunean Jam aretoan**

Jennifer Finch kantariaren The Shocker musika taldeak kontzertua eskainiko du egunean, hilaren 18an, Jam-en, 22.00etan. Talde estatubatuarrek *Up your ass tray* bere azken diskoa aurkeztuko du. Bestalde, gaur, egubakoitza Macrea irlandar umoristaren saioa izango da, 23:00etan, eta bihar, zapatua, gauerdian, *techno* jaia izango da Claude Young eta Steve Bug-en eskutik.

LABUR

Gaztetxoan margo erakusketa kultur etxean ikusgai datorren martxoaren 28ra arte

Oihana Garitano eta Mayra Jimenezek ikasleen margo erakusketa ikusgai izango da martxoaren 13tik 28ra kultur etxean. Aurretik, 6 eta 12 urte bitarteko 30 gaztetxo inguruk dihardute Beartek antolatutako ikastaroan.

Esan bezala, erakusketa bihar, zapatua, irekiko dute, kultur etxeko erakusketa aretoan.

Idoia Etxarri eta Iñigo Magunazelaiaren zeramika erakusketa Nahikari tabernan

Idoia Etxarri bergararraren eta Iñigo Magunazelaiaren zeramika erakusketa ikusgai izango da martxoaren bukaerara arte Mesterrekako Nahikari tabernan.

Idoia Etxarri eta Iñigo Magunazelaiak Simon Arrieta zeramika taldean dihardute. Hainbat lan jarri dituzte erakusketan.

Oihulari Klown taldeak ‘Divinas’ bere azken lana antzetzeko du domekan Arrasaten

Oihulari Klown taldeak *Divinas* bere azken lana antzetzeko du domekan, martxoaren 14an, Arrasateko Amaia antzokian, 19:30ean.

Umorezko lan horretan, Laura Lopez, Virginia Imaz eta Txefo Rodriguez aktoreak ditugu Maria Magdalena, Ama Birjina eta Jesukristoren paperetan, hurrenez hurren.

ZAHARRAK BERRI/ San Joxepeko bazkideek batzar berezia egingo dute eguaztenean, hilaren 17an, 17:00etan

Juan Iturralde elkarteko presidente izateko proposatuko du San Joxepeko zuzendaritzak

EDU MENDIBIL

San Joxepe erretiratuen elkarteko bazkideek batzar berezia egingo dute eguaztenean, hilaren 17an, 17:00etan. Zuzendaritza batzordea berritzea izango, dute aztergai. Juan Iturralde presidente izateko proposatuko dute batzarrean.

San Joxepeko zuzendaritza batzordeak dei egiten die elkarteko bazkide guztiei eguazteneko batzarrean parte hartzeko. Tomasa Zabaleta zenaren heriotzaren ondorioz, elkarteko presidente kargua nor hartuko duen erabakitzeko dago. Baliteke Juan Iturralde izatea San Joxepeko presidente berria. Horixe izango da, hain zuzen, zuzendaritza batzordearen proposamena eguaztenean. Juan Iturraldek lau urte daramatza San Joxepeko zuzendaritza batzordean. Iturraldek 65 urte ditu, eta erretiratu aurretik Mayc lantegian izan zen lanean. Era berean, 1970eko hamarkadaren hasieran Bergarako Udaleko zinegotzia izan zen

lau urtez, Luis Laskurain alkatea zela. Iturraldek zera adierazi digu aste honetan: "Zaila izango da Tomasak utzitako hutsunea betetzea. Hark egindako lana bikaina izan da benetan, eta elkarte hobetzeko lanean jarraitu behar dugu gogor. Horretarako bazkide guztien inplikazioa beharrezkoa izango da. Era berean, herriko kolektiboekin harreman estua izatea, elkarkidetzatza bultzatzea da gure helburuetako bat".

ZUZENDARITZA BERRITU

Hain zuzen ere, presidente berria izendatzeaz gainera, zuzendaritza berritzea da beste helburuetako bat. Azken urteotan ez da izan erreleburik zuzendaritzan. Gutxienez, zuzendaritzako kideen erdia berritzea da helburua. Azken urteotan, Iturralderekin batera, Dora Manso, Nieves Gallastegi, Nati Albisua, Juan Kruz Azkarate, Maria Luisa Bastera, Mariasun Plazaola, Jesus Ruiz de Azua, Jose Miguel Ortigosa eta Antolin Marchena izan dira zuzendaritzan. Gaur egun, 1.700 bazkide inguru ditu San Joxepe erretiratuen elkarteak.



Juan Iturraldek lau urte daramatza San Joxepeko zuzendaritzan, eta presidente izateko proposatu dute.



San Joxepeko lagunak Errioxan

San Joxepe elkarteko lagunek Errioxara irteera egin zuten aurreko egubakoitzean, martxoaren 5ean. Eguraldi ona izan zuten egun osoan, eta primeran ibili ziren Errioxa aldean: goizean Logroñon egon ziren eta horren ondoren Biasteriko Marisa jate-txean bazkaldu zuten. Arratsaldean, berriz, Haron ibili ziren. Iluntzean bueltatu ziren Bergarara. Guztira, 110 lagun inguru joan ziren Errioxara. Ezkerreko irudian, hain zuzen, San Joxepetik joandako lagun taldea Biasterin.

LABUR

Erretiratuen mendi irteera Udalara apirilaren 1ean

Erretiratuek egindako mendi irteeren programarekin jarraituz, hurrengo irteera apirilean 1ean izango da. Ibilbidea honako hau izango da: Kanpanzar-Besaide-Udala. Kanpanzarrera autobusez joango dira, eta handik hasiko dute ibilaldia. Autobusa 09:15ean aterako da Iburgaraiko geltokitik. Bazkaria, berriz, Udalan egingo dute. Izenematea erretiratuen egoitzako harrera gelan egin daiteke. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.

Idoia Iriarte Irureta

Dentista

Artekale 1 - 1C Bergara Tel.: 943 76 01 65

Odontologia orokorra •

• Asegurua: LAGUN-ARO



BERGARA
Maribel Fernandez
Martxoaren 12an.
Urte askotarako!
Deiane eta Aimarren partez.



BERGARA
Aroa Arevalo
Martxoaren 6an, 1 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Miren Muñoz
Martxoaren 5ean, 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Unai Belategi
Martxoaren 14an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Iker Ugarte
Martxoaren 14an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Andoni Bretaña
Martxoaren 16an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
bereziki Ane.



ANTZUOLA
Mikel Asensio
Martxoaren 10ean, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maribel Fernandez
Martxoaren 12an, 44 urte.
Urte askotarako!
Osaba-izebak.



BERGARA
Unai Balanzategi
Martxoaren 13an, 6 urte.
Urte askotarako!
Ama, aita eta Leire.



BERGARA
Oihana Aldazabal
Martxoaren 14an, 15 urte.
Urte askotarako!
Eskolakoak.



BERGARA
Eneritz Madariaga
Martxoaren 11n, 17 urte.
Urte askotarako!
Gaberokoak.



BERGARA
Asier Eguren
Martxoaren 4an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Ainhoa Eguren
Martxoaren 12an, 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Oihan Ibarra
Martxoaren 6an, 4 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
bereziki Garazi eta Unai.



BERGARA
Iker Nogueiras
Martxoaren 8an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta bereziki June.



BERGARA
Jose Ramon Gorosabel
Martxoaren 10ean.
Zorionak aitako!
Maider eta Julenen partez.



BERGARA
Julen Arriola
Martxoaren 12an, 2 urte.
Urte askotarako!
Familiako partez.



BERGARA
Olaia Arriola
Martxoaren 10ean, 2 urte.
Urte askotarako!
Familiako partez.



BERGARA
Maria Zubia
Martxoaren 15ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Maria eta Elena.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua



BERGARA
Daniel Gantxegi
Martxoaren 17an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Leire.



BERGARA
M^o Karmen Otaola
Martxoaren 14an.
Zorionak!
Josu, Unai, Leire eta Danel.



BERGARA
Eneko Etxeberria
Martxoaren 12an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Iraila 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko martxoaren 12a / 193. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Ezohiko osoko bilkura egingo du Udalak, Izartu programarako proiektuen gainean

AINTZANE IRIZAR

Datorren eguaztenean, hilak 17, ezohiko osoko bilkura egingo du Udalak, Izartu programara zein proiektu aurkeztuko dituen erabakitze-ko. Horrekin lotuta, Gertu Gae plataformak hainbat kritika egin dizkio Udalari, eta alderdikeriaz diharduela esan du.

Udaleko arduradunek azaldu digutenez, dirulaguntzak lortzeko Izartu programara aurkeztuko dituzten proiektuetan aldaketa batzuk izango dira. Ez digute, baina, zehaztasun gehiagorik eman. Badirudi Izartu programaren laguntzak jaso ahal izateko bete beharreko hainbat baldintza aldatu egin dituela Eusko Jaurlaritzak. Martxoaren 22a da proiektuak Jaurlaritzari aurkezteko azkeneko eguna.

Izartu programarekin, Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusia da gainbehera datozen edo ekipamendu gutxi dituzten gune-ek laguntzak ematea eta berpiztea.

Urtarrilean, Udalak programa horretarako prestatu zituen proiektuen berri eman zuen. Jose Angel Zabalo alkateak, Joxe Joan



Urtarrilean aurkeztu zituen Izartu programarako proiektuak Jose Angel Zabalo alkateak, diputatu nagusiarekin batera.

Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiarekin batera, jendaurreko agerraldia egin zuen Olanan etxean, herritarrei proiektuen berri emateko.

KIROLDEGIA EGINGO DUTE

Gertu Gae herritarrei zuzendutako idatzi baten bitartez esan du Izarturen bigarren deialdi honetatik kanpo geratu dela kirolde-

giaren proiektua. Horri erantzunez, Udaleko arduradunek esan digute agintaldi honetan proiektu hori aurrera eramateko asmoa duela Udalak.

Gertu Gae esan du kiroldegiaren proiektua ezin izango dela aurkeztu Izartu programara

Oraingo hau Izartu programaren bigarren deialdia da. Lehendabiziko deialdian ere —aurreko agintaldian— hainbat proiektu aurkeztu zituen Udalak, baina, ez zuen laguntzarik jaso. Gertu Gaeren esanetan, erabaki hori zela eta, epaitegietara jo zuen Antzuolako Udalak, Lasartearekin batera. Horrela dio Gertu Gae plataformaren idatziak: "Apartheid egoeratik sortutako udalbatzarrak (PNV-EA) auzitegietako bidea baztertzearabaki zuen, alkatearen alderdi bereko politikarien promesetan oinarrituz. Alderdi interesak herriaren interesen gainetik jarritz. Orain jakin dugu Lasarteko Udalak auzia irabazi egin duela eta Gasteizko gobernuak derri gorrez ordaindu beharko diola egokitzen zaiona".

KIROLA

Juanito Oiartzabalek hitzaldia egingo du martxoaren 18an

Martxoaren 18an, eguna, urteko batzar orokorra egingo du Arrola mendi elkarteak, 19:00etan, Olanan etxean. Hantxe, iazko irteeren balantzea egingo dute, eta aurtengo ekintzen berri emango dute. 2003an, 18 irteera egin zituzten, eta batez beste, 30 bat lagunek parte hartu zuen irteera bakoitzean.

Bestalde, zuzendaritza batzordean hainbat aldaketa egingo dituzte. Jose Mari Iturbe oraingo presidenteari, esaterako, kargua lagatzea egokitzen zaio.

Zuzendaritzako kide berriak, baina, aurrerago aukeratu dituzte, beste batzar baten.

JUANITO OIARTZABAL ETORRIKO DA

Batzar orokorraren ondoren, 19:30ean, Juanito Oiartzabalen hitzaldia eta diapositiba emanaldia izango dugu, Olanan etxean bertan.

Hamalau zortzimilakoan gainean jardungo du Oiartzabal mendizaleak; hala, harekin solasaldia egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek.



Juanito Oiartzabal mendizalea.

LABUR

Presoen senideei dirulaguntzak emateko araudia onartu dute osoko bilkuran

Aurreko asteko egubakoitzean, martxoak 5, egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak presoen senideei dirulaguntzak emateko araudia. Espetxera bisitara joateagatik senideek izandako gastuak ordaintzeko bakarrik emango da diru hori. EAEtik kanpo espetxeratuta dauden presoen senideek izango dute laguntzak jasotzeko aukera. Kilometro bakoitzeko 10 zentimo jasoko dute. Gehienez, hiru bidaiarako laguntza jaso ahal izango dute.

Emakumeen eta presoen eskubideen gaineko mozioak onartu ditu Udalak

Martxoko osoko bilkuran bi mozio onartu zituzten. Batetik, Gipuzkoako Batzar Nagusiek proposatuta, presoen eskubideen aldeko mozioa. Presoak Euskal Herrira ekartzea eta gaixotasun sendaezina dituztenak, bereziki, Manu Azkarate aske lagatzea eskatzen da, besteak beste. Bestetik, Elvira Kortajarena PSE-EEko zinegotziak aurkeztuta, emakumeen eskubideen aldeko mozioa onartu zuten.

INGURUMENA

Tokiko Agenda XXI garatzeko hitzarmena

AINTZANE IRIZAR

Tokiko Agenda XXI betetzeko eta garatzeko konpromisoa hartu du Udalak. Mankomunitatearen, ibarreko udal guztien, Diputazioaren eta Ihobe elkarte publikoaren artean lankidetzaren hitzarmena sinatuko dute aurki, Tokiko Agenda XXI diseinatzen hasteko.

1992an Rio De Janeiron egindako Lurrari Buruzko Gailurrean, garapen jasangarriaren aldeko hainbat irizpide finkatu zituzten, Agenda XXI izenarekin. Helburu nagusia da garapena, berdintasuna, demokrazia eta solidaritatearen izenean, Agenda XXI mende honetako agenda politiko bihurtzea. Bizi kalitatearekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotuta dago agenda hori, eta hiru ardatz nagusi ditu: ekonomia, gizartea eta ingurumena.

Jaurlaritzak hartutako konpromisoaren arabera, 2006rako, EAEko 5.000 biztanletik gorako udal guztiek diseinatuta izan beharko dute Tokiko Agenda XXI. Debagoieneko udalen kasuan,

denek batera diseinatuko dute. Horrela, Antzuolako Udalak Debagoieneko gainerako udalekin batera, *Udaltalde XXI Debagoiena* osatuko dute, plan hori diseinatzeko eta garatzeko.

LANKIDETZA HITZARMENA

Udaltalde XXI Debagoiena proiektua eratzeko eta aurrera eramateko, lankidetzaren hitzarmena sinatuko dute, Debagoieneko Mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ihobe elkarte publikoak eta ibarreko udal guztiek, hala onartzen baldin badute. Hitzarmen horretan oinarrituta, 2004. urterako kudeaketa plana ere finkatuko dute, eta honako aurrekontua izango du plan horrek: 60.000 euro aholkularitza gastuetarako, eta 40.000 euro komunikazio planerako.

Hitzarmena sinatuko duten guztien artean ordaindu beharko dituzte gastu horiek, guztira, 100.000 euro. Udalen kasuan, denen artean urteroko kudeaketa planaren %20 ordaindu beharko dute, Mankomunitateari egiten dizkioten ohiko ekarpenen bidez.



Baserritarrek bazkaria egin zuten

Aurreko zapatuan Aingeru Guardakoaren eguna pasatu dela eta, baserritarrek bazkaria egin zuten, ermandadeen ohiturari jarraituz. Garai baten, ermandadeetan antolatzen ziren baserritarrek; horien helburua zen norbaiti behiren bat hiltzen zitzaionean denen artean ordaindu eta okela banatzea. Gaur egungo aseguruaren papera betetzen zuten./A.I.

LABUR

Olaranen eman beharko dugu botoa, domekan

Iazko udal hauteskundeetan bezala, bi mahai jarriko dituzte domekako hauteskundeetarako. Biak egongo dira Olaran etxeko beheko solairuan.

Mahai baten, 839 herritarrek eman ahal izango dute botoa; beste mahaian, berriz, 808 lagunek izango dute botoa emateko aukera. Guztira, 1.647 boto-emaile; datu horretan, baina, atzerrian bizi diren antzuolarrak kontuan hartu gabe daude. Orain dela lau urteko hauteskundeetan, 1.617 hautesle zeuden Antzuolan.

Oraingo asteburuan ez dute zabalduko erakusketa

Aurreko asteburuan, Anelkarrek antolatuta, zabaldu zuten Amnesty Internationalen emakumeen gaineko erakusketa. Oraingo asteburuan, baina, ez da zabalik egongo.

Hurrengo asteburuan, martxoaren 20an eta 21ean, zabalduko dute berriro erakusketa.

HERRITARREN HITZA / Alaitz Jauregi · Gizarte laguntzailea

Lehenengo garaixak ala orainguak nahixago?

Orain, bene-benetan esan zenbat aldiz esan doazuen: "aiiii...lehenengo denboretan..."; bai, bai, esaldi tipikua, baina zelako egixa! Gaztetxotantontokerixak direla pentsatzen jakun, baina urtien buruan, poliki-poliki, geuri irtetzen doskue. Zergaittik esaten doten hau? Gauzak, normala dan bezela, asko aldatzen direlako; eta eskerrak, bestela Francon garaixan estankatuta egongo ginake. Orain, askatasun gehixago dago. Zertan? Pentsatzeko eran, esaterako; lehen dana pekatua zan, eta orain pekatu egiten ez dabena, tontua.

Matxismua be indarra galtzen doia poliki-poliki (oraindik be berdintasuna ametsa dan arren). Herrixak be askoz hobeto daude preparamatuta aisialdirako, lanerako, komodidatetarako... Garraio aldetik be ez dittugu lehen beste kilometro egitten oinez; ze etxetan ez daude bi kotxe, gutxienez? Ta astebukaeretan, zer? Lehen, bazkaldu orduko erromerixan zeuden; orain, berriz,



"Lehen dana pekatua zan; orain, pekatu egiten ez dabena, tontua"

hilabete lehenago hasi bihar da zineko karteleretara gerturatu ta erabakitzen: hainbeste areto eta aukera, eta jende ilarak? Eta antzerki saio ugarixak? Eta kontzertuak? Eta...? Mundua ezagutzeko be erreztasun gehixago dago, edozein tokittako jendiakin tratatu geinke, kultura ezberdin gehixago ezagutzen ditugu, lanak asko erraztuta daude, gero ta ordu gutxiago lan

egitten da, konsumismo gehixago dago nahikua diru erabiltzen dogulako, mentalidadia asko zabaldu da... Baina honek alde ilunago bat be badauka, e! Komunetik sukaldera deitzeko mobilla erabiltzen dogu, ez daukagu idearik be ze jaten dogun, animala koittaduak euren gaitotasunak kontajiatzen doskue, egitten dogun eskulan zailena kotxeko bolantiari eraittia da, zenbat ume ikusten dira lehenengo aldian kalia jolasian? Gozian, jaiki orduko espriñian hasten gara, ez dozue pentsatzen laister umiak jaio biharri an ordenadoriak jaiko direla?

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Martxoak 13
16:00: Antzuola-Urnieta (2. erreg.)
Martxoak 14
12:00: Antzuola-Eibartarrak (Gazteak)

PILOTA
Martxoak 13 (Udaberri Saria)
17:00: Olalde-Altzatarra I (palet. nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA
Behobia B 2 Antzuola 2 (2. erreg.)
Landetxa 0 Antzuola 4 (Gazteak)

PILOTA
Udaberri Saria
Ordizia-Olalde (paletaz nag.)... 35-24

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

SUKALDEKO ALTZARIAK

Harizki

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko martxoaren 12a / 177. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



ARTXIBOA

Irailen irekiko dute haurtzaindegia eta 0 eta 2 urte bitarteko umeak joan ahal izango dira bertara.

Haurtzaindegia Herri Eskolan jarriko dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak Haurreskolak partzuegoarekin akordioa sinatzea onartu du aste honetan egindako osoko bilkuran. Akordio honekin, datorren irailetik aurrera, herrian 0 eta 2 urte arteko umeendako haurtzaindegia izango da Herri Eskolako eraikinean.

Osoko bilkuran Udalak Haurreskolak partzuegoarekin akordioa sinatzea adostu ostean, irailetik aurrera hezkuntza zerbitzu berria ipiniko dute abian.

Haurtzaindegian 0 eta 2 urte bitarteko umeak egongo dira, eta seguru aski talde bakarra izango da hasieran; hala ere, gerora talde gehiago sortzeko aukera egon liteke. Iaz eta aurten jaiotako umeek izango dute lekua haurtzaindegian. Iaz bederatzi ume errolatu zituzten Elgetan eta aurten jadanik bi jaio dira.

Zenbat irakasle egongo diren ume kopuruaren arabera erabakiko dute. Egutegia eta ordutegia, berriz, gurasoek eta irakasleek adostuko dituzte. Hala ere, jakinarazi dute haurtzaindegia bi

egunetan baino ez dutela itxiko, herriko jaietako egun batean eta San Inazio egunean, hain zuzen.

HEZKUNTZA ETA LAGUNTZA

Haur Eskolak hezkuntzaz gain laguntza ere eskaini nahi du. Hori horrela izan dadin, goizeko lehen orduetan hezkuntzarekin lotutako ekintzak egongo dira. Ondoren, sartzeko eta irteteko aukera egongo da, baina bazkal orduan sarreak eta irteerak mugatu egingo dituzte. Edozelan ere, gurasoren batek umeari bularra eman behar badio edo beste zerbaitegatik sartu nahiko balu, irakaslearekin hitz egin beharko luke. Janaria gurasoek eraman beharko dute bertan berotu eta eman diezaieten. Lotarako tartetxo bat ere izango dute umeek.

*Haurtzaindegian
0 eta 2 urte bitarteko
umeak egongo dira,
eta seguru aski talde
bakarra egongo da*

Haur Eskola abian jartzearen helburuetako bat gurasoak lanean diharduten familiei erraztasunak ematea da. Azken baten, umeek etorkizuna bermatzen dute, eta zaindu egin behar dira.

Hezkuntza proiektua, bestalde, herri bakoitzak finkatuko du eta horren ardurua Udaleko ordezkari batek, hezitzaile batek eta guraso batek izango dute.

BEHIN-BEHINEKO KOKAPENA

Udalak haurtzaindegia Herri Eskolan ipintzeko asmoa zuen eta hala izango da oraingoz. Izan ere, Haurreskolak partzuegotik jarritako baldintza bat da haurtzaindegian sarrera independentea izatea. Izan ere, ume gehiago hasiko balira toki falta egongo litzateke bai haurtzaindegian eta baita eskolan bertan ere. Gainera, herrian etxeak eraikitzen dihardutela ikusita, ume kopuruak gora egingo duela aurreikusiko dute.

Beraz, oraingoz, irailen Herri Eskolan kokatuko dute haurtzaindegia, baina erabaki dute bi edo hiru urteren buruan egoitza finkoa Torrealdean Udalak dituen lokaletan jartzea.

INGURUMENA

Zuhaitz Eguna martxoaren 28an

Joan zen astelehenean Baserritarren batzordeak bilera egin zuen, eta beste hainbat gairen artean aurtengo Zuhaitz Eguna izan zuten hizpide.

Hilaren amaieran, martxoaren 28an, domekan, egingo dituzte Zuhaitz Eguneko ospakizunak.

Iaz bezala Eguarbitzako lursailetan elkartuko dira herritarrek eta bertan landatuko dituzte zuhaitzak. Aurtengorako aukeratu dituzten arbolak haritzak eta pagoak dira.

IAZ JAIOTAKOAK

Udalak dei egingo die iaz jaio ziren haurren gurasoei, zuhaitz landaketan parte har dezaten. Honela, zuhaitz bakoitzak ume baten izena edukiko du eta haurra hazten denean gurasoek hori gogoraraziko diote umeari.

Udalak jarriko ditu zuhaitz landareak eta baita aitzurrak ere, baina aitzurrak dituztenek ere eraman ahal izango dituzte.

Aitzurrarekin lanean ibili ostean hamaiketako izango da.



Pagoak eta haritzak landatuko dituzte Eguarbitzako lursailetan.

LABUR

Gastronomia ikastaroetan izena emateko epea martxoaren 18an amaituko da

Udalak gastronomia ikastaroak antolatu ditu 25 urtetik gorako endako. Hiru ikastaro izango dira: lehenengoa eskualdeko sukalaritza, bigarrena, 20 ordukoa, gozogintzaren gainekoa, eta azkena, ardo dastaketaren nondik norra ikastekoa, 20 ordukoa. Izenematea udaletxean bertan egin beharko da eta horretarako martxoaren 18a izango da azken eguna. Ikastaroak doan izango dira.

Mankomunitateko batzordeetarako ordezkariak eta ordezkokoak izendatu dituzte

Debagoieneko Mankomunitatean hainbat aldaketa izan dira, eta ondorioz, Udalak jardueraren koordinatuetako batzordeetarako ordezkariak izendatu ditu. Gizarte Zerbitzuen arloaz Izaskun Larrea arduratuko da, Administrazioaren Modernizazioaz Oxel Erostarbe Kirolez Iñaki Ugarteburu eta Kultura eta Euskaraz Iban Retolaza. Ordezkokoak ere izendatu zituzten azken osoko bilkuran, eta hemendik aurrera hauek hartuko dute parte bileretan.

KIROLA

Bihar hasiko da ibarreko pilota txapelketa, zortzi bikoterekin

I.A.

Ibarra eskuz binakako pilota txapelketa bihar goizean hasiko da, eta guztira zortzi bikotek jardungo dute. Bestalde, Ozkarrik antolatutako lau t'erdiko txapelketari martxoaren 18an ekingo diote. Kadeteetan 86 pilotari izango dira eta 23 urtez azpikoetan, 112.

Bihar ekingo diote eskuz binakako pilota txapelketari. Guztira zortzi bikotek eman dute izena, eta partaideak Arrasatekoak, Aretxabaletakoak, Oñatikoak, Bergarakoak, Abadiñokoak eta Elgetakoak bertakoak izango dira.

Egutegia oraindik zehazteke badago ere, partiduak zapatu goizetan jokatu dituzte, Udal Pilotalekuan.

Elgetako Koldo Goenagak Ignacio Peñin bikotekide duela jokatu du. Esan digunez, "kirola egitea da gure asmoa. Herriko txapelketan jokatu nuen, eta han animatu ninduten parte hartzera. Ez dugu irabazteko helburuarekin jardungo, baina saiatuko gara joko ona egiten". Bikote horrek ordezko moduan Javier Intxaurren auzeratu du, profesionaletan ibilitako pilotaria.

LAU T'ERDIKOA

Txapelketa horretan, ibarreko pilotariak eta gertukoek jardungo badute ere, aurki hastekoa da Ozkarrik antolatzen duen lau t'erdiko txapelketa: bertan, Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako, Nafarroako, Iparraldeko eta Errioxako pilotariak lehiatuko dira.

Bi mailatan banatuko dituzte pilotariak: kadeteetan 86 pilotarik eman dute izena eta 23 urtez azpikoetan mailan, berriz, 112 lagunek. Tartean izango da elgetarrik ere: Andoni Elortza eta Etor Garate, hain zuzen ere. Bi horiek kadeteetan jokatu dute. Pilota joko polita erakusten saiatuko dira, baina kontuan hartuta iazko txapelkunak, Apezteak, aurtan ere izena eman duela, zaila izango da elgetarrentzat txapelketa.

23 urtez azpikoetan, berriz, ez dago faborito argirik. Izan ere, iaz aurrean ibili zirenak goiko mailara pasatu dira, eta aurtan pilotariak berriak dira.

Martxoaren 18an hasiko da txapelketa, eta partiduak bariquetan, zapatuetan eta domeketan jokatu dira.



Ignacio Peñinek eta Koldo Goenagak ibarreko txapelketan jardungo dute.

ARTXIBOA



Emakumeen eskubideak aldarrikatuz

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna asteen izan da. Hori dela eta, Gazte Asanbladak deituta elkarretaratzea egin zuten domekan *Emakumea bizirik* lelopean. Emakumeen eskubideak aldarrikatzea izan zen helburua. Bestalde, gaur, barikua, Lanbroa emakume taldeko kide batek hitzaldia egingo du gazte-txean, iluntzean. Aurrez afari-merienda egingo dute. /I.A.

PRESOAK

Presoen eskubideen aldeko proposamena onartu du Udalak

I.A.

Euskal preso politikoaren eskubideak izan zituzten berbetarako gai azken osoko bilkuran. Hain zuzen ere, Elgeta Auzolanian plataformak aurkeztutako mozioa bertan behera geratu zen, eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek proposatutakoa onartu.

Elgeta Auzolanian plataformak euskal preso politikoaren eskubideen errespetuaren aldeko mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran martitzenean, hilaren 9an. Aipatutako mozio horren bidez, "euskal preso politikoek bizi duten egoera itogarria" salatu nahi izan zuten.

Aralar alderdiko zinegotziak mozioa onartzeko prest azaldu ziren, puntu baten aldaketa bat

eginez gero, baina EAJ-EA koalizioaren ordezkariek ezeztatu bota eman zuten, mozioa ez zuten onartu.

Mozio horren ordez beste bat aurkeztu zuten, presoen eskubideen aldeko ez-arauzko proposamena, Gipuzkoako Batzar Nagusiek egindakoa. Mozio hori aho batez onartu zuten Udal ordezkariek osoko bilkuran.

Testu horrek dio "bake prozesua bultzatzeko gatazkaren humanizaziotik hasi behar dela, guztion sufrimendua aitortuz. Horretarako, sakabanaketaren ondorioz presoen senideek jasaten duten sufrimendua ekidin behar dela, preso dauden euskaldunek zigorra Euskal Herriko espetxeetan betez". Bestalde, "gaixotasun sendaezinak dituzten presoak berehala askatzeko" eskatzen du.

Gainera, testu horren berri emango diote Espainiako barne ministroari, Espetxe Zuzendaritzari eta Espainiako Estatuak Hego Euskal Herrian dituen gobernu ordezkariei.

MANU AZKARATEREN ALDE

Manu Azkarate preso tolosarra 1992an askatu zuten, gaixotasun larria zuelako, eta orain dela gutxi berriz atxilotu dute. Hori dela eta, Elgeta Auzolanian plataformak mozioa aurkeztu zuen.

EAJ-EAk Azkarateren berehalako askatasuna eta senideekiko elkartasuna eskatzen dituen puntuak onartu zituen, baina gaintzekoei aurkako botoa eman zien. Aralarrek mozioaren alde bozkatu zuen.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere Azkarateren askatasuna eskatu dute euren testuan.

BOLATOKI

Eguneko menua
Asteburuan menu bereziak
Konbinatuak, ogitartekoak eta kazuelatxoak
Karta eta babarrun-jana enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia
- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

ERRETRATU ZAHARRA

ELGETA

Jaizkibel
mendira
irteera

Elgetarrak ez dira sekula geldi egotekoak izan, eta herritik kanpora makina bat irteera egin izan dituzte urtetan.

Orain dela 40 urte inguru, 1963an, Bidasoa aldera egin zuten txangoa Elgetako hainbat lagunek. Hondarribia eta Guadalupe bisitatu zituzten eta Jaizkibel mendian ere izan ziren. Argazkia Jaizkibelen ateratakoa da.

Talde polita joan zen txangoa egitera, eta hona hemen erretratuan azaltzen direnak, goitik hasita ezkerretik eskumara: Ezezaguna, ezezaguna, Mari Carmen Etxebarria, Maribel Agirre, ezezaguna eta Maria Luisa Arantzeta.

Bigarren ilaran: Libe Telleria, Juanita Sarasketa, Eugenia Zubiata eta Canuto Askasibar.

Hirugarren lerroan: Maria Dolores Arantzeta, Maribi Irazabal, Elena Arantzeta, Maria Esther Telleria eta Dionisia Arantzeta.

Laugarrenean: Ana Mari Zubirre-menteria, Kontxi Bolinaga, Mertxe Mendikute eta Jose Mari Larrañaga.

Bosgarren ilaran: Mari Carmen Askasibar, Elena Arozena, Maria Asun Agirre, Rosarito Irazabal eta Maria Angeles Arantzeta.

Azken lerroan: Gemma Etxebarria, Mari Tere Erostarbe, Ana Mari Zaballondo eta Maria Jose Irazabal.

Argazkia: Maria Asun Agirre



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak


Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67


BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono. 761051
R.S.I. 209374 - 55
BERGARA

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Non dago frontoi hau?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|---|---|
| <p>1.
Zenbat egoiliarrendako tokia dauka Mizpirualde Egoitzak?</p> <p>A/ 119.
B/ 113.
C/ 115.</p> | <p>2.
Zein da Ariznoa gimnasia taldeko entrenatzailea?</p> <p>A/ Alicia De Miguel.
B/ Sonia Corredera.
C/ Marta Aranguren.</p> | <p>3.
Zein talderena da <i>Las punkis tambien lloran</i> antzezlanaren?</p> <p>A/ Detritus Teatrus.
B/ Anastua.
C/ Ados.</p> |
|--|---|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

GARAZI ZUBIZARRETArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Garazi!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: **Isasizabal** / Galde debalde: **1-B, 2-B, 3-A.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


Danone jogurtak

Askotarikoak. Lauko packa.

0,82 €

136 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTXIBOA

BERGARAROSPETSUAUK

Fernando Azkargorta

KOLDO PEREIRA

Bergaran jaio zen, 1919ko maiatzaren 30ean. Simon Arrietaren dizipulu gogokoena izan zen. Gogotik saiatu zen beti Bergarako herriaren izen onaren alde. Simon Arrietari lagundu zion Pintura Eskola sortu eta aurrera eramaten. Hasieran, zaletasun hutsez ekin zion margotzeari; izan ere, Bergarako industria baten zuzendaria zen ogibidez. Negozioek sorrarazten zizkioten buru-hausteeetatik ihesi jo zuen pinturara, atseginez jo ere; geroago, ordea, gaixotasunak jota geratu zenean, egun osoko ardura bihurtu zen bere bizitzan. Bere lanak Gasteizen, Donostian, Bilbon... izan zituen ikusgai, eta egindako ahaleginei esker, euskaldun margolaririk onenetakoa izan zen gure artista.


Kritikariek ondo berba egin zuten Azkargortaren lanari buruz, bereziki paisaietan islatu zuen izaeragatik eta pertzepzio barnekoa eta espirituala-gatik. Gizon geldiezina, herritarra, atsegina eta Gipuzkoa osoan ezaguna. Hutsune handia utzi zuen Euskal Herriko pinturaren historian. Gazterik hil zen, 1973ko martxoaren 15ean hil zen, 53 urte zituela.

Paisaietan islatu zuen izaera eta pertzepzio barnekoa eta espirituala goraiatu zuen kritikak

ARDATZA
Brikolajea

- | | |
|--------------------|-------------------------|
| Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini |
| Horma-armairuak | Era guztietako moldurak |
| Sarrailak | Apalak |
| Heldulekuak | Kaxoiak |

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

ILE APAINDEGIEN GIDA

MAIDER, AMPARO ETA IRATXE / AMPARO ILE APAINDEGIKOAK

'Moda jarraitzen dugu; Londresera joaten gara denboraldi berrian zer eramango den ikustera'

Zenbat urte daramatzazue orrazten?

Amak 28 urte daramatza ile apaintzaile; guk, berriz —berak eta Iratxe eta Mainer alabek— umetatik izan dugu zaletasuna. Ile apaindegian hirurok egiten dugu lan.

Modaren jarraitzaileak al zarete?

Bai, noski. Beti jakin behar duzu momentu bakoitzean zer eramaten den. Negurako eta udarako tendentziak, normalean, ez dira berak izaten. Londresera joaten gara zer eramango den ikustera. Gipuzkoa Taldeko kideak gara. Gauza asko egiten ditugu talde horretan: show-ak, desfileak eta ikastaroak, besteak beste. Taldeko kide bakoitzak lan bat dauka taldearen barruan, eta guztiak sariak jasotakoak gara; Iratxek makillaje lanak egiten ditu eta Mainerrek estilista lanak. Aipatzekoa da Bartzelonako Cosmo Belleza ferian egindako lana; neska baten gorputza makillatu genuen hantxe, "Gorputzeko Makillaje Lehiaketan".

Zelako bezeroak daukazue?

Adin eta estilo guztietako jendea etortzen zaigu, emakumezkoak eta gizonezkoak.

Jendea ausarta da?

Gipuzkoa Taldearekin lortu ditugun sariei esker jende gehiagok ezagutzen gaitu herrian, eta guregana datorren jendeak askotariko kolore eta orrazkerak egiteko eskatzen digu.



Jendeak zaintzen du ilea? Aholkurik ematen diezue bezeroei?

Orokorrean, jendeak zaintzen du ilea. Guk Kérastase markako produktuekin egiten dugu lan. Ilea osasuntsu ez badago, kolorea ematea kaltegarria da. Kasu bakoitzean, jarraitu beharreko tratamenduaren berri ematen diogu.

Jendeak zuen esku uzten du guztia ala ideiak argi etortzen da?

Jendeak nahi duguna egiten lagatzen digu. Gugan konfiantza osoa daukate.

Ile apaindegia bakarrik ala beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzue?

Makillaje berezia egiten dugu; besteak beste, protesiak (sudurrak, belarriak), ezkontzetarako makillajea, fantasiazkoa eta karakterizazioak (zahar itxura, zauriak). Iratxe Madrilen ibili da ikasten, makillajea erakusten duten akademia garrantzitsu baten.



Boni Laskurain 2
BERGARA
Tel.: 943 76 56 05

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kérastase tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

Aukera onenak

ADATS

• Herri lagunak 4
BERGARA
• 943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua

disdira

• Masterreka 7
BERGARA
• 943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloretan

IDOIA

• Espoloia 4
BERGARA
• 943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

ileak

• Ozaeta 3
BERGARA
• 943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IZARRA

• San Pedro 23
BERGARA
• 943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutxarekin

KIZKUR

• Bolu 51
BERGARA
• 943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

• San Pedro 6
BERGARA
• 943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Ostadar

• Ibargarai 42
BERGARA
• 943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

Pepelu

• Zurradero 2
BERGARA
• 943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

Sanchez

• Fraiskozuri 4
BERGARA
• 943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea